CIDER TALKS CONTEST FAIR

www.sagardoforum.eus

# IV. SAGARDO FORUM

**18-21**

**AZAROA 2021**

**Kursaal (Donostia)**

**Erribera Kulturgunea (Astigarraga)**

**www.sagardoforum.eus**
**#sagardoforum2021**




SAGARDOAREN LURRALDEA
el territorio de la sidra




Azaroaren 18an eta 19an IV. Sagardo Forumeko jardunaldi teknikoak aurrera eraman ziren Erribera Kulturgunean. Bertako, estatuko eta nazioarteko adituek egungo egoerari buruzko ikuspegi orokorra eskaini, eta azken urteotan sagardoaren alorrak bizi duen bilakaeraren berri eman zuten. Hitzaldien ardatza sagarra, sagardogintza eta esperientzia turistikoak izan ziren. Aurkezpenez gain, izotzezko sagardoei eta sagardo monobarietalei buruzko tailerra ere egin zuten.

# SAGARDOA

Sagardoak munduan bizi duen gorakada eta indartzea, ekoizteko modu berri nahiz sagardo motei lotuta dago. Sagardoaren dibertsifikazioaren adibide batzuk ezagutu ziren.




**HITZALDIAK**

- *Sagardoak goi mailako sukaldaritzan dituen posizionamenduaren gakoak.* **Juan Luis García**, Casa Marcial jatetxeko sommelierra.
- *Upategietako salmenta argudioak.* **Juan Carlos López de Lacalle**, Artadi Upategiko arduraduna.
- *Sagardoa HORECA eta Retailera bideratzeko aukerak,* **Michelle Foik**, ERIS Brewery & Cider Houseko arduraduna.
- *Upategien bilakaera pandemia egoeran.* **Rainer Brusis**, Innova Managementeko arduraduna.
- *Cavas Llopart: Enoturismo arrakasta kasua Penedèseko familia upategian.* **Cristina Soler,** Cavas Lloparteko enoturismo arduraduna.
- Mahai-ingurua: *2022ko sagardotegi denboraldia. Nolakoa izango da? Zer egin?*

# SAGARRA

Sagarra sagardo ona ekoizteko funtsezkoa da, eta hori izan zen ekoizle nahiz sektoreko profesionalei zuzendutako jardunaldi teknikoen hasierako ardatza.

**HITZALDIAK**

- *Gipuzkoako sagardo sagarrondo barietateen polenaren bateragarritasuna eta bideragarritasuna.* **Carlos Miranda**, Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA) irakaslea.
- *Banaketa eta uzten arteko oreka.* **Yves Barranco**, Arbus Habiliseko kudeatzailea.
- *Ibarbi errezil sagarra.* **Luis Berrondo**, Errezilgo Ibarbi Sagarraren Elkarteko presidentea.
- *Sagarrondoa eta lurra sagasti ekologikoetan.* **Andreu Vila**, Arreu aholkularitza kooperatibako teknikaria.
- *Terruño eta ur beharrak sagasti ekologikoetan.* **Ángel Anocibar**, Abadía Retuerta upategiko zuzendari teknikoa.
- *Sagardo sagarraren errentagarritasuna.* **Daniel Exner**, Finca Gallinaleko kudeatzailea.




# TAILERRA



Bestelako sagardo motak egiten ikasteko aukera ere izan zen jardunaldi teknikoen barruan. AEBtako Eden Specialty Cider enpresako **Eleanor Leger**-ek izotzezko sagardoak egiteko prozesua eta horiek merkaturatzeko aukerak azaldu zituen; Alemaniako Weidmann & Groh enpresako **Norman Groh**-k, berriz, gauza bera egin zuen monobarietalekin.




# NAZIOARTEKO SAGARDO LEHIAKETA

**15 herrialdetako sagardogileek** parte hartu dute III. Sagardo Forum Nazioarteko Sagardo Lehiaketan. Guztira, **205 produktu** aurkeztu dituzte hamar kategorietan. Azaroaren 20ko goizean nazio mailako zein nazioarteko 32 epailek sagardoak dastatu eta puntuatu zituzten Kursaal Kongresu Jauregian. Taldeka, sagardoak baloratu, eta kategoria bakoitzeko dominak eman zituzten.168 banatu zituzten: 54 urre, 61 zilar eta 53 brontze. Halaber, urrezko domina eskuratu zutenen artean lehiaketako onena hautatu zuten. **Best of Show** saria Llagar Panizales ekoizlearen **Panizales izotzezko** sagardoari eman zioten.







## EPAILEAK

| | |
|---|---|
| Arita Akree | Edel Sider Akree Garden jabea |
| Irati Amondarain | Enologoa |
| Agurtzane Andueza | Fraisoro Laborategiko zuzendaria |
| Rubén Arranz | Sommelierra |
| Ryan Burk | Angry Orchardeko ekoizpen burua |
| Guillermo Castaños | Essencia Winen jabea |
| Tano Collada | Enologoa |
| Dani Corman | Fraisoro laborategiko enologoa |
| Franz Egger | Floribundako jabea |
| Michelle Foik | Eris Brewery & Cider Houseko jabea |
| Yan Gilles | Enologoa |
| Norman Groh | Weidmann & Groh enpresaren jabea |
| Sarah Hemly | Hemly Ciderren jabea |
| Albert Johnson | Ross on Wye Cider & Perryren jabea |
| Xabier Kamio | AZ3 Oenoko enologoa |
| Maider Larrañaga | Gipuzkoako sommelier onenaren BMW Más Gastronomía Sariduna |
| Eleanor Leger | Eden Specialty Ciderren jabea |
| Marc Lhommeau | Domaine de la Mareren jabea |
| Ana López | Fraisoro Laborategia |
| Pablo Montero | Gunea jatetxea |
| Tom Oliver | Oliver´s Cider and Perryren jabea |
| Santi Rivas | Colectivo Decantadoko enodibulgatzailea |
| Jasper Smith | Son of Man enpresaren jabea |
| Maite Retolaza | Oiharte sagardotegiaren jabea |
| Mikel Rodríguez | Xaiope jatetxearen arduraduna |
| Alvar Roosima | Jaanihanso Ciderren jabea |
| Félix San Sebastián | FRUITEL elkarteko presidentea |
| Iñaki Santos | Ikertzailea |
| Karl Sjöström | Fruksteroren jabea |
| Christian Suarez | Enologoa |
| Egoitz Zapiain | Zapiain sagardotegiko ekoizlea |
| Ion Zapiain | Zapiain sagardotegiko ekoizlea |














# OHOREZKO TXAPELEN IRABAZLEAK

1. **"Best of show" saria**:

Sidra de hielo Panizales (Llagar Panizales) (Asturias).

2. **Kategoria bakoitzeko irabazleentzako ohorezko txapela**:

- **Euskal Herriko sagardo tradizionala**: Oiharte sagardotegia (Euskal Herria).
- **Sagardo natural asturiarra**: Sidra Castañon, Llagar Sidra Castañón (Asturias).
- **Sagardo tradizional frantsesa**: L'Insoumis, Domaine de la Mare (Frantzia).
- **Sagardo tradizional ingelesa**: Bitter Steve, Angry Orchard (AEB).
- **Sagardo berriak**: Cervenka, Cidérka (Txekiar Errepublika).
- **"Premium" sagardo aparduna**: Edel sider-Metode Trad, Edel Sider-Aakre Gard (Norvegia).
- **Apfelwein sagardoa**: Speierling halbtrocken, Weidmann & Groh (Alemania).
- **Zaporetako sagardoa eta udardoa:** Cydonia, Weidmann & Groh (Alemania).
- **Izotzezko sagardoa**: Sidra de hielo Panizales, Llagar Panizales (Asturias).

# Euskal Herriko sagardo tradizionala

Kolorea erabilitako sagar barietateen araberakoa da, lasto koloreko horitik hasi eta urre zaharreko hori koloreetaraino. Euskal Herrian ekoiztutako sagardoak apur bat garratza den oreka mantentzen du gozotasun, garraztasun eta astringentziaren artean, gutxieneko %5-eko alkohol mailarekin.

Gorputza duten sagardoak dira, jatorri endogenoko karbonikoaren presentzia nabaria dutenak. Usainak sagar barietate ezberdinetatik eratorritakoak dira; gutxi heldutako fruituaren izaera berdeago eta freskokoak, edo gehiago heldutako fruituaren usain gozoagoak, konpota usainetaraino.

## SARITUAK

### URREA — 45-50 PUNTU

| EUSKAL SAGARDOA | | | |
|---|---|---|---|
| Zapiain sagardotegia | Euskal Herria | Joanes de Zapiain 2020 | 45 |
| Oiharte sagardotegia | Euskal Herria | Euskal Sagardoa | 45 |

### ZILARRA — 38-44 PUNTU

| EUSKAL HERRIKO SAGARDO TRADIZIONALA | | | |
|---|---|---|---|
| Gurutzeta sagardotegia | Euskal Herria | Gorenak | 41 |
| Son of Man | AEB | Sagardo | 38 |

| EUSKAL SAGARDOA | | | |
|---|---|---|---|
| Isastegi sagardotegia | Euskal Herria | Euskal Sagardoa Premium | 43 |
| Zapiain sagardotegia | Euskal Herria | Berezia 2020 | 41 |
| Gurutzeta sagardotegia | Euskal Herria | Euskal Sagardoa Premium | 41 |
| Isastegi sagardotegia | Euskal Herria | Euskal Sagardoa | 40 |

### BRONTZEA — 30-37 PUNTU

| EUSKAL HERRIKO SAGARDO TRADIZIONALA | | | |
|---|---|---|---|
| SAS Egarri | Euskal Herria | Sagardoa Kupela | 37 |
| SAS Egarri | Euskal Herria | Aingura Kupela | 35 |
| Baldorba Naturel & Sagarraleku | Euskal Herria | Baldorba Naturel & Sagarraleku | 34 |

| EUSKAL SAGARDOA | | | |
|---|---|---|---|
| Alorrenea sagardotegia | Euskal Herria | Euskal Sagardoa Premium | 36 |
| Izeta sagardotegia | Euskal Herria | Euskal Sagardoa | 31 |

## KATEGORIAKO ONENA




## OHIARTE SAGARDOTEGIA

### OHIARTE EUSKAL SAGARDOA

Maite Retolaza Ojanguren eta Haritz Eguren Urrestarazu 2010eko uztan hasi ziren sagardoa merkaturatzen, nahiz eta bien familietan betidanik egin izan den sagardoa. 2002an Oiharte baserri zaharra eraberritu zuten, nekazal etxe bihurtuz. Ondoren, sagardotegia eraiki zuten, sagarraren bueltan esperientzia oso bat bizitzeko aukera eskainiz.

Sagardotegia urte guztian dute zabalik, 100% Euskal Sagardora bideratutako sagardoa egiten du etxeko eta Goierriko beste baserri batzuetako sagarrarekin. Naturala, ekologikoa, premium sagardo aparduna eta izotzezko sagardoa ekoizten dute.

**Kontaktua**:
Irukarate-gain auzoa
20214 Zerain (Gipuzkoa)
(34) 690 79 35 07
(34) 686 29 91 58
www.ohiarte.com
sagardotegia@oiharte.com

# Sagardo natural asturiarra

Batik bat, sagar garratzeko edo ia garratzeko barietateekin elaboratzen da. Elaborazio prozesuan hartzidura alkoholikoa eta ondoren malolaktikoa egiten ditu. Bere ezaugarri nagusia garraztasun hegazkorraren maila 1 gr/azido azetiko baino handiagoa izatea eta oro har 2 gr/l-ko mailan egotea da.

Inolako egonkortze artifizialik jasaten ez duten sagardoak dira, denborarekin botilan eboluzionatzen dutenak. Ez dauka gehiegizko gorputzik. Sagardo lehorrak dira, hondakinezko karboniko endogeno baxudunak. Zapore garratza eta zitrikoa gailentzen da.

## SARITUAK

### URREA — 45-50 PUNTU

| | | | |
|---|---|---|---|
| Sidra Menéndez | Espainia | Sidra natural | 46 |
| Sidra Trabanco | Espainia | Sidra Trabanco Selección | 46 |
| Llagar Sidra Castañón | Espainia | Sidra Castañon | 45 |

### ZILARRA — 38-44 PUNTU

| | | | |
|---|---|---|---|
| Llagar Sidra Castañón | Espainia | Sidra Val de Boides | 42 |
| Llagar Sidra Fran | Espainia | Ramos del Valle | 41 |
| Sidra Menéndez | Espainia | Sidra natural D.O.P. | 38 |

### BRONTZEA — 30-37 PUNTU

| | | | |
|---|---|---|---|
| Sidra Piñera | Espainia | Piñera | 37 |
| Angry Orchard | AEB | Edu | 36 |
| Sidra Trabanco | Espainia | Sidra Trabanco Tradicional | 35 |
| Sidra Piñera | Espainia | Piñera D.O.P. | 35 |
| Valle, Ballina y Fernández | Espainia | Pomarina Natural Tradicional | 30 |

## KATEGORIAKO ONENA



## LLAGAR SIDRA CASTAÑÓN

### SIDRA CASTAÑÓN

Egungo kudeatzailearen aitonak, Alfredo Garcia Menendezek, 1938an sortu zuen dolarea. Sagardo natural ekoizpen txikiak saltzen hasi zen, ondoren, Julian Castañon suhiak hartu zuen ardura, ekoizpena urtero handituz eta tresneria hobetuz. 1982an hil zenean, semeak hartu zuen zuzendaritza, amak eta arrebak lagunduta. Santa Ana auzotik egungo kokalekura lekualdatu zuten.

Sidra Castañon izenpean sagardo naturala ekoizten dute, jatorri izendapena duena, Xiz Frizzante burbuiladun sagardo berria, eta Roxmut, belarrekin upelean beratutako sagardoa.

**Kontaktua**:
Los Pisones 90
San Miguel de Arroes 33314
Quintueles (Villaviciosa) Asturias
985 89 45 76
www.sidracastanon.com
info@sidracastanon.es

# Sagardo tradizional ingelesa

Frantziako sagarren antzeko barietateak erabiltzen dira sagardoa egiteko, oso gozoak baina baita garratzak ere. Gaur egungo sagardo gehienek karbonatazio exogenoa daramaten arren, artisau ekoizleek elaborazio tradizionala ere erabiltzen dute sagardo ekoizpenean. Ez dira sagardo frantsesak bezain gozoak, baina erabilitako sagarrek ematen dieten eta ekoizleak egindako nahasketaren arabera gehitu eta gutxiagotzen den astringentzian bat egiten dute. Usain espeziatuak, ketuak, banilla eta kasu batzuetan ukuilu usainak nabarmentzen dira.

## SARITUAK

### URREA — 45-50 PUNTU

| | | | |
|---|---|---|---|
| Oliver's Cider and Perry | Erresuma Batua | Gold Rush #9 | **46** |
| Angry Orchard | AEB | Bitter Steve | **45** |

### ZILARRA — 38-44 PUNTU

| | | | |
|---|---|---|---|
| Oliver's Cider and Perry | Erresuma Batua | The Mayflower Cider | **43** |
| Ross on Wye Cider & Perry | Erresuma Batua | Bastet 2000 | **40** |
| Berryland | Ukraina | Pet-nat apple cider | **40** |
| Berryland | Ukraina | Barrel fermented apple cider | **39** |

### BRONTZEA — 30-37 PUNTU

| | | | |
|---|---|---|---|
| Ross on Wye Cider & Perry | Erresuma Batua | 'Dancing Required' cider | **34** |
| Gutshof Kraatz | Alemania | Apfel cider 2020 | **33** |
| Eden Specialty Ciders | AEB | Cinderella's Slipper | **30** |

## KATEGORIAKO ONENA




## ANGRY ORCHARD
### BITTER STEVE

Boston Beer Companyren enpresa da, Hudson Valleyn duen 25 hektareako sagastiko sagarrekin ekoizten ditu sagardoak. 2020an AEB-tan gehien saldu zuen sagardo marka izan zen.

Angry Orchardenean lehen sagarrondoak duela 100 urte ingurukoak dira. Ohiko sagar motak berreskuratzeko asmoz, sagastiaren gune batzuk barietate ikerketara eta sagardo sagarrondo berriak landatzera bideratzen dituzte. Askotariko sagardoak lantzen dituzte, tradizional ingelesak eta frantsesak, eta bereziki, berriak eta zaporetakoak. Natural asturiar bat ere badute.

**Kontaktua:**
2241 Albany Post Road
Walden, NY 12586
(AEB)
1 888 845 3311
www.angryorchard.com

# Sagardo tradizional frantsesa

Frantzian, Bretainia eta Normandia herrialdeetan Keeving elaborazio modua erabiltzen da. Mantenugaiak deuseztatu egiten dira legamiak lanean hasi aurretik eta ondorioz azukre guztia alkohol bihurtzea ekiditen dute, sagardo zaporetsuak, gozoak, alkohol maila baxukoak eta konplexuak lortuz.

Sagardo karbonatatuak dira, botilan nahiz ontzi-isobarikoetan. Oro har, honela etiketatu ohi dira: Doux, Demi-sec eta Brut. Anbar nahiz laranja koloreak ematen dizkieten tanino ugariko sagar ehuneko altu batekin egindako sagardoak dira.

## SARITUAK

### URREA — 45-50 PUNTU

| | | | |
|---|---|---|---|
| Domaine de la Mare | Frantzia | L'Insoumis | **46** |
| Domaine de la Mare | Frantzia | Le Généreux | **46** |
| Eden Specialty Ciders | AEB | Semi Dry Methode Traditionelle | **46** |

### ZILARRA — 38-44 PUNTU

| | | | |
|---|---|---|---|
| Rozavern | Frantzia | Finisterrae | **42** |
| Cider Sekt | Txekiar Errepublika | Cider talk by Provoco semi dry | **41** |
| Les Vergers de Kermao | Frantzia | Kermao AOP Cornouaille | **41** |
| Angry Orchard | AEB | Dear Brittany | **38** |
| Txopinondo sagarnotegia | Euskal Herria | Cidre pétillant | **38** |
| Cider Sekt | Txekiar Errepublika | Cider talk by Provoco bitter sweet | **38** |

### BRONTZEA — 30-37 PUNTU

| | | | |
|---|---|---|---|
| Cidrerie au pressoir du Bélon | Frantzia | AOP Cornouaille | **31** |
| Rozavern | Frantzia | AOP | **30** |

## KATEGORIAKO ONENA




## DOMAINE DE LA MARE
### L'INSOUMIS

Sarthois eskualdeko Sarge-les le Mans udalerrian dago Domaine de la Mare. Belaunaldiz belaunaldi familiak landutako lurretan, sagastiak jarri zituen Marc Lhommeauk. 1994an sortutako familia enpresak balio eko-arduratsuetan oinarritzen du bere jarduna, zuhaitzak errespetuz zainduz. Sagar onenak ekoizten dituzte, eta haiek produktu ezin hobeak bilakatzea dute pasio, betiere, prozesuan ekosistemak eta natura babestuz. 2012. urtean Nekazaritza Ekologiko zigilua eskuratu zuten.

Sagardo tradizional frantsesak, apardunak eta muztioa saltzen dute.

**Kontaktua:**
72190, Sargé-lès-le-Mans
(Frantzia)
(+33) 2 43 76 00 46
www.domainedelamare.com

# Sagardo berriak

Batik bat Ingalaterra, Irlanda edo Espainiako jatorria duten eta mundu osoko merkataritza-guneetan saltzen diren sagardoak dira. Kasu guztietan, mahaiko sagarra eta karbonatazio exogenoa erabiltzen dute.

Urre koloretik hasi eta lasto kolore argitara doazen sagardoak dira, kasu batzuetan ia gardenak. Gehienetan iragazitako sagardoak dira, unean bertan desagertzen den hasierako aparra dutenak. Oro har, sagardo nahiko lauak eta astringentzia handirik gabekoak dira. Sagardo nahiko gozoak dira, freskagarriak, garraztasun ertainekoak eta alkohol maila gutxikoak (%4-5 gradu artean).

## SARITUAK

### URREA — 45-50 PUNTU

| | | | |
|---|---|---|---|
| Sagar iraultza | Euskal Herria | Musker | 48 |
| Cidérka | Alemania | Rehek | 47 |
| Angry Orchard | Erresuma Batua | Understood in Motion 4 | 47 |
| Alde AS | Norvegia | Alde Sider | 46 |
| Cidérka | Txekiar Errepublika | Cervenka | 46 |
| Urban Farm Fermentory | AEB | Super Dry Cidah | 46 |
| Ulvik Frukt & Cideri | Norvegia | Gravenstein | 46 |
| Edel Cider - Aakre Gard | Norvegia | Edel sider 6.5 | 45 |
| The Walnut House Sarl | Libano | Wata lebanese cider brut | 45 |
| Hera Cider Drinks | Espainia | Hoppy cider | 45 |
| Ulvik Frukt & Cideri | Norvegia | Kvitanesen - Poesider | 45 |
| Sidra Trabanco | Espainia | Pecado del paraiso dulce | 45 |

### ZILARRA — 38-44 PUNTU

| | | | |
|---|---|---|---|
| Jaanihanso Cider | Estonia | Sec Methode Traditionnelle 2017 | 44 |
| Cidrerie au pressoir du Bélon | Frantzia | Cidre Blanc | 44 |
| Gallinal Drink | Espainia | Exner craft apple cider | 43 |
| Ciderzale | Euskal Herria | High Flying cider | 43 |
| SAT Posma | Espainia | Posma | 42 |
| Llagar Sidra Castañón | Espainia | Xiz Frizzante | 40 |
| Pom Sidro Creativo | Italia | Pom Sidro Creativo | 40 |
| Lionel Staudenmann | Suitza | Pok! | 40 |
| Sidra Trabanco | Espainia | Llagar de Camin sin alcohol | 39 |
| Sidra Trabanco | Espainia | Pecado del paraíso sin alcohol | 39 |
| Sidra Somarroza | Espainia | Capricho de Somarroza | 39 |
| Domaine de la Mare | Frantzia | L'Imprévu | 39 |
| Edel Cider - Akree Gard | Norvegia | Edel Sider 4.7 | 38 |
| Weidmaan & Groh | Alemania | Grohsecco | 38 |
| Campple Ibérica | Espainia | Campple Cider | 38 |
| The Walnut House Sarl | Libano | Wata Lebanese Cider Dry | 38 |
| Valle, Ballina y Fernández | Espainia | Pomarina natural | 38 |

### BRONTZEA — 30-37 PUNTU

| | | | |
|---|---|---|---|
| Eris Brewery & Cider House | AEB | Pedestrian apple cider | 37 |
| The Walnut House Sarl | Libano | Wata Lebanese Cider Original | 36 |
| Paladeus | Italia | Cider 1979 | 36 |
| Jaanihanso Cider | Estonia | Doux Methode Traditionnelle 2017 | 35 |
| Sidra Trabanco | Espainia | Llagar de Camin clásica dulce | 35 |
| Sidra Trabanco | Espainia | Pecado del paraíso natural | 34 |
| Elegast Cidery | Herbehereak | Wild Cider | 32 |
| Valle, Ballina y Fernández | Espainia | Sidra Gaitero Rosé | 30 |
| Valle, Ballina y Fernández | Espainia | Sidra Gaitero Extra | 30 |
| Valle, Ballina y Fernández | Espainia | Spring Cider Manzana | 30 |
| Hera Cider Drinks | Espainia | Natural | 30 |

## KATEGORIAKO ONENA




## CIDÉRKA
### CERVENKA

Modu artisauan, gehigarri gabe eta natura errespetatuz ekoizten dute sagardoa; Moraviako hautatutako zenbait baratzetan erositako sagarrekin. Azukrerik ez diote gehitzen muztiori eta hartzidura geldoa egiten du zapore eta usain gehiena izan dezan. Sagardo frantsesak bezala botilan ontzen doa, modu naturalean. Muztioa, zaporetako sagardoak, sagardo berriak, naturala edota premium aparduna ere lantzen dute.

2019an Brnoko sagardotegi bat berritu zuten. Bertan jardun artisaua eta teknologia berriak batzen dituzte.

**Kontaktua:**
Nálepkova 205/6
637 00 Brno
(+420) 732 81 79 49
www.ciderka.cz
info@ciderka.cz

# Premium sagardo aparduna

Botilako bigarren hartzidura bidez edo Charmat – Grand vas bidez egindako sagardo apardunak dira. Espainiako cava, Frantziako xanpaina edo Alemaniako sekt-a ardo apardunen antzeko sagardoak dira. Erabilitako sagar mota eta leku bakoitzeko usadioaren arabera, izaera bat edo bestea izango dute. Lasto koloretik hasi eta urre kolore bizietara. Beti iragaziak, garbiak. %6-8 alkohol maila eta garraztasun, mikaztasun eta hondarreko azukrean orekatuak. Egotekotan, ahoan eztanda egiten duen karboniko maila altukoak. Azukre hondarraren arabera, Brut Nature, Brut edo gozoagoak izan daitezke.

## SARITUAK

### URREA — 45-50 PUNTU

| | | | |
|---|---|---|---|
| Eden Specialty Ciders | AEB | Brut Nature | 47 |
| Edel Cider - Akree Gard | Norvegia | Metode Trad | 47 |
| Mount Diablo Cider Company | AEB | Cox Orange Pippin | 47 |
| Sidra Somarroza | Espainia | Sidra espumosa dulce | 46 |
| Llagar Sidra Fran | Espainia | Ramos del Valle Brut Nature | 45 |
| Yria + Eduardo | Espainia | Gaia | 45 |

### ZILARRA — 38-44 PUNTU

| | | | |
|---|---|---|---|
| Sociedade agricola Sidralfa | Portugal | Espumante Sidra Alfa | 44 |
| Oiharte sagardotegia | Euskal Herria | Ama Oiharte | 43 |
| Sidra Somarroza | Espainia | Sidra espumosa seca | 43 |
| Eden Specialty Ciders | AEB | Ezekiel | 42 |
| Floribunda | Italia | Apfel cider alla mela | 41 |
| Valle, Ballina y Fernández | Espainia | Sidra Gaitero etiqueta negra | 39 |
| Angry Orchard | AEB | Baldwin Traditional Method | 39 |
| Sidra Riestra | Espainia | Guzman Riestra | 38 |
| Edel Cider - Akree Gard | Norvegia | Light-Methode trad | 38 |
| Angry Orchard | AEB | Trois Pomme Traditional | 38 |

### BRONTZEA — 30-37 PUNTU

| | | | |
|---|---|---|---|
| Sidra Trabanco | Espainia | Poma Aurea | 37 |
| Jaanihanso Cider | Estonia | Brut Methode Traditionnelle 2016 | 36 |
| Valle, Ballina y Fernández | Espainia | Pomarina Espumosa | 36 |
| Weidmann & Groh | Espainia | Nizza | 34 |
| Astarbe Sagardotegia | Euskal Herria | Byhur Sagardo Aparduna | 34 |
| Astarbe Sagerdotegia | Euskal Herria | Byhur 24 | 34 |
| Valle, Ballina y Fernández | Espainia | Valle, Ballina y Fernández Brut Nature | 33 |
| SAT Posma | Espainia | Posma Brut | 32 |
| Angry Orchard | AEB | Newtown Pippin Traditional Method | 30 |
| Elegast Cidery | Herbehereak | Premium Organic Cider | 30 |

## KATEGORIAKO ONENA




## EDEL CIDER - ÅKRE GARD

### METODE TRAD

Åkre Gard, Ullensvang Herad-eko (Hardanger) Sørfjord fiordoaren mendebaldean kokatua dago. Gaur egun Arita eta Gjermund Åkre dira proiektu buru, Marit eta Olav belaunaldi gazteagoaren laguntzarekin batera.

Negozioaren jardun nagusia sagar zukuaren eta bere eratorrien ekoizpena dira. Fruta bere ekoizpenekoa edo barrutiko bizilagunena da. Kontu handiz jasotzen eta aukeratzen dute. Barietateen izaera mantendu ahal izateko sagar motak erabiltzen dituzte: Aroma, Gravenstein, Idun, Karen Schneider... Ez du gehigarririk.

**Kontaktua:**
Fv550 30
5776 Nå (Norvegia)
(+47) 958 55 683
www.åkregård.no
post@åkregård.no

# Apfelwein (Sagardoa)

Alemania edo Austria bezalako herrialdeetako sagardoa. Nagusiki sagar garratzekin egindakoak, sagar batzuk mahairako edo sagardoa egiteko balio duten antzinako barietateak dira. Sagardo lehorrak dira, garraztasun maila onarekin eta ardo zurien tankerakoak, hortik datorkio izena. Beste sagardo batzuek ez bezala, ez dute inoiz garraztasun hegazkorra izaten. Uherrak edo iragaziak izan daitezke. Urre kolorekoak eta karbonatatu gabekoak izan ohi dira. Txinparta apur bat izan dezakete. Fruta berdearen usaina gailentzen da. Oro har, %5,50-6 alkohol maila izan ohi dute.

## SARITUAK

### URREA — 45-50 PUNTU

| | | | |
|---|---|---|---|
| Weidmann & Groh | Alemania | Speierling halbtrocken | 48 |
| Weidmann & Groh | Alemania | Speierling | 47 |
| Sabiles Sidrs | Letonia | Dry apple wine Gardener's five seed | 45 |
| Weidmann & Groh | Alemania | Boskop | 45 |
| Gutshof Kraatz | Alemania | Rote Sternrenette | 45 |

### ZILARRA — 38-44 PUNTU

| | | | |
|---|---|---|---|
| Gutshof Kraatz | Alemania | Kanada Renette 2020 | 39 |

### BRONTZEA — 30-37 PUNTU

| | | | |
|---|---|---|---|
| Buschenschank Lippitz | Austria | Jonagold | 33 |

## KATEGORIAKO ONENA




## WEIDMANN & GROH

### SPEIERLING HALBTROCKEN

Weidmann baserria Ockstadt fruta eskualdean kokatua dago eta bertan belaunaldiz belaunaldi ekoizle lanetan dihardute. Haiekin destilatuak egin izan dituzte. 2006an Norman Groh suhia batu zen proiektura Weidmann & Groh enpresa eratuz. Destilatuez gain, sagardo artisaua ekoizten hasi ziren eta, gaur egun, Alemaniako ezagunentakoa da eta sari ugari jaso ditu nazioarteko lehiaketetan.

Barietate bakarreko sagardoak lantzen ditu, azidotasun altukoak, Rin inguruko ardo zurien antzeko sagardo intentsu eta aromatikoak lortuz. Azken urteetan garagardoa ere egiten hasi dira.

**Kontaktua:**
Ober-Wöllstädterstr. 3
D-61196 Friedberg
(+49) 06031/77 03 97
www.weidmann-groh.de
ng@weidmann-groh.de

# Zaporetako sagardoak

Beren elaborazion beste fruta batzuk, zuku edo espeziak erantsi zaizkien sagardoak dira. Sagardo argi eta distiratsuak, erabilitako fruta edo espeziaren kolorea izan ohi dute, baina oxidaziorik gabe. Erabilitakoaren arabera astringentzia, garraztasuna edo mingostasuna handiagoa izango da. Usainean, oinarrian erabilitako sagardoa hauteman behar da eta orekatua egon behar du. Udardoa, berriz, %100ean udarearekin egina dago. Kolore argikoa da. Uherrak edo iragaziak izan daitezke. Usainak fruta batena izan behar du, kasu batzuetan ardo zuriarena izan ohi da.

## SARITUAK

### URREA — 45-50 PUNTU

| | | | |
|---|---|---|---|
| Sidra Somarroza | Espainia | Biter Bio | 48 |
| Ulvik Frukt & Cideri | Norvegia | Hylleblomsider | 47 |
| Angry Orchard | AEB | Francenstein | 47 |
| Oiharte sagardotegia | Euskal Herria | Lupuloarekin hartzitutako Euskal Sagardo Naturala | 47 |
| Floribunda | Italia | Quitten Cider alla Cotogna | 46 |
| Weidmann & Groh | Alemania | Cydonia | 46 |
| Floribunda | Italia | Holunder Cider al Sambuco | 46 |
| Txopinondo Sagarnotegia | Euskal Herria | Kalipoko peche | 45 |
| Floribunda | Italia | Ginger Cider | 45 |
| Llagar Panizales | Espainia | Sidra de aperitivo Viesk | 45 |
| Hemly Cider | AEB | Brut Pear | 45 |
| Oliver's Cider and Perry | Erresuma Batua | Keeved Perry #8 | 45 |
| Llagar Sidra Castañón | Espainia | Roxmut | 45 |

### ZILARRA — 38-44 PUNTU

| | | | |
|---|---|---|---|
| Eris Brewery & Cider House | AEB | Van Van Mojo Hopped Blueberry Cider | 43 |
| Castelo Branco Cider | Portugal | Chiron | 43 |
| Elegast Cidery | Herbehereak | Plum Cider | 42 |
| Sidra Somarroza | Espainia | La sidruca con limón | 42 |
| Valle, Ballina y Fernández | Espainia | Spring Cider Manzana + Uva | 42 |
| Sidra Trabanco | Espainia | Alma de Trabanco | 42 |
| Txopinondo sagarnotegia | Frantzia | Kalipoko Citron | 42 |
| Angry Orchard | AEB | FLX Cherry | 42 |
| Berryland | Ukraina | Quince apple cider | 42 |
| Hemly Cider | AEB | Chai Pear | 41 |
| Sabiles Sidrs | Letonia | Sweet apple and quince cider | 41 |
| Jaanihanso Cider | Estonia | Rose Methode Traditionnelle | 39 |
| Eris Brewery & Cider House | AEB | Blush Cherry Cider | 39 |
| Urban Farm Fermentory | AEB | Flakey Bark SV 2000 Perry | 38 |
| Ross on Wye Cider & Perry | Erresuma Batua | Mayador frutas del bosque | 38 |

### BRONTZEA — 30-37 PUNTU

| | | | |
|---|---|---|---|
| Elegast Cidery | Herbehereak | Kriek Cider | 37 |
| Sabiles Sidrs | Letonia | Semi dry apple and black currant cider | 36 |
| Berryland | Ukraina | Cabernet franc apple cider | 35 |
| Berryland | Ukraina | Cabernet franc apple cider | 34 |
| Ulvik Frukt & Cideri | Norvegia | Svartsurbaer | 34 |
| Jaanihanso Cider | Estonia | Perry Brut Nature Methode Traditionnelle 2019 | 33 |
| Hera Cider Drinks | Espainia | Kiwi & Lima | 32 |
| Elegast Cidery | Herbehereak | Premium Organic Perry | 31 |
| Elegast Cidery | Herbehereak | Mispel Cider | 31 |
| Hemly Cider | AEB | Sloughouse Jalapeno Pear Cider | 30 |

## KATEGORIAKO ONENA




# WEIDMANN & GROH

## CYDONIA

Weidmann baserria Ockstadt fruta eskualdean kokatua dago eta bertan belaunaldiz belaunaldi ekoizle lanetan dihardute. Haiekin destilatuak egin izan dituzte. 2006an Norman Groh suhia batu zen proiektura Weidmann & Groh enpresa eratuz. Destilatuez gain, sagardo artisaua ekoizten hasi ziren eta, gaur egun, Alemaniako ezagunentakoa da eta sari ugari jaso ditu nazioarteko lehiaketetan.

Barietate bakarreko sagardoak lantzen ditu, azidotasun altukoak, Rin inguruko ardo zurien antzeko sagardo intentsu eta aromatikoak lortuz. Azken urteetan garagardoa ere egiten hasi dira.

**Kontaktua**:
Ober-Wöllstädterstr. 3
D-61196 Friedberg
(+49) 06031/77 03 97
weidmann-groh.de
mail@brennerei-ockstadt.de

# zotzezko sagardoa

Elaborazio prozesurik tradizionalenean, sagarrak (berantiarrak eta azukre maila altua dutenak) izozketa egoeran prentsatzen dira. Hartzidura bera bakarrik geratzen da legamiak hiltzen dituen alkohol maila altua lortuz. Izotzezko sagardo tradizionalaren izaera txaptalizatua duenetik ezberdina da, lehendabizikoen elaborazio prozesuan ez baita muztioaren azukre maila bakarrik handitzen; garraztasuna eta fruta zaporea ere handitzen dira. Kolore ilunekoak, sagardo distiratsuak eta gorputz handikoak dira. Oso sagardo zaporetsuak, sagar heldu askokoak, garraztasuna dutenak eta ahoan amaiera luzekoak dira. %9-14 arteko alkohol maila dute.

## SARITUAK

### URREA — 45-50 PUNTU

| | | | |
|---|---|---|---|
| Llagar Panizales | Espainia | Sidra de fuego Caldea | 47 |
| Zapiain sagardotegia | Euskal Herria | Bizi-Goxo 2017 | 47 |
| Zapiain sagardotegia | Euskal Herria | Bizi-Goxo 2015 | 46 |
| Edel Cider - Akree Gard | Norvegia | Edel Is-Sider | 46 |
| Llagar Panizales | Espainia | Sidra de hielo Panizales | 46 |
| Eden Specialty Ciders | AEB | Falstaff 2013 | 45 |
| Edel Cider - Akree Gard | Norvegia | Premium 12 | 45 |
| Llagar Panizales | Espainia | Sidra de postre Olivia | 45 |

### ZILARRA — 38-44 PUNTU

| | | | |
|---|---|---|---|
| Juankorena sagardotegia | Euskal Herria | Basajaun crianza | 40 |
| Juankorena sagardotegia | Euskal Herria | Basajaun dulce | 38 |

### BRONTZEA — 30-37 PUNTU

| | | | |
|---|---|---|---|
| Trois-Lacs Ciders | Suitza | Nectar Givré | 37 |
| Valle, Ballina y Fernández | Espainia | 1898 | 37 |
| Eden Specialty Ciders | AEB | 2018 Eden Heirloom Blend | 37 |
| Kuartango sagardotegia | Euskal Herria | Su sagar | 36 |
| Alde AS | Norvegia | Alde Svans | 36 |
| Juankorena sagardotegia | Euskal Herria | Basajaun Clasic. | 36 |
| Alde AS | Norvegia | Alde Issider | 36 |
| Oiharte Sagardotegia | Euskal Herria | Izotzezko sagardoa | 34 |
| Angry Orchard | AEB | Ice cider | 30 |

## KATEGORIAKO ONENA




# LLAGAR PANIZALES

## SIDRA DE HIELO PANIZALES

# BEST OF SHOW

Miereseko familia enpresa. Juan Carlos eta Faustino Vázquez Fernández, 'Tino Panizales', anaiek daramate gaur egun. 1991an hartu zuten ardura, ordura arte betiko zaletasun izandakoa ofizio bilakatu zuen Faustinok. Bere ikertzeko eta probak egiteko zaletasunetik atera dira egun dituzten produktuetako batzuk. Esaterako, izarra den izotzezko sagardoa.

Fruta erretilutan izoztu eta desizozten du, edari konplexuago bat lortuz. Urtean 3.000 botila besterik ez ditu saltzen, eta eskatu ahala botilaratzen du sagardoa. Aperitiboko sagardoa ere badute eta udare zukuarekin egindako izotzezko udardoa ere ikertu dute.

**Kontaktua:**
Espinedo kalea, 13
33618 Espinedo, Asturias
(+34) 985 46 78 15
www.sidrapanizales.com

CIDER FAIR FERIA AZOKA

www.sagardoforum.eus




# NAZIOARTEKO SAGARDO AZOKA

Kursaal Kongresu Jauregian **II. Nazioarteko Sagardo Azoka** aurrera eraman zen. Bi egunez, publiko profesionalak eta herritarrek munduko beste txoko batzuetan egiten diren sagardo motak ezagutzeko aukera izan zuten.

Sektoreko erreferenteak diren bertako eta atzerriko 20 ekoizlek beraien produktuak ekarri zituzten. Sagardo naturalak, apardunak, izotzezkoak, zaporetakoak edota berriak. Bertaratu zirenek denen produktuak dastatu ahal izan zituzten eta egilearen eskutik haien berri izan. Halaber, Zaporeak egitasmoarekin elkarlanean, pintxo solidario bat jan eta Lesboseko errefuxiatuei laguntzeko aukera izan zuten.

Zabalik egon zen bi egunetan 765 pertsona bertaratu ziren Sagardo Forumeko azoka honetara.

## ERAKUSKETARIAK

### Angry Orchard
AEB / Walden (New York)
www.angryorchard.com

**Produktuak:**
- Sagardo tradizional frantsesa
- Sagardo natural asturiarra
- Zaporetako sagardoa eta udardoa
- Premium sagardo aparduna

### Domaine de la Mare
Frantzia / Sargé-lès-le-Mans
www.domainedelamare.com

**Produktuak:**
- Sagardo tradizional frantsesa
- Premium sagardo aparduna

### Edel Cider-Aakre Gard
Norvegia / Nå
www.åkregård.no

**Produktuak:**
- Premium sagardo apарduna
- Sagardo berriak
- Izotzezko sagardoa

### Eden Specialty Ciders
AEB / Newport (Vermont)
www.edenciders.com/

**Produktuak:**
- Premium sagardo apарduna
- Izotzezko sagardoa
- Zaporetako sagardoa eta udardoa
- Sagardo tradizional frantsesa
- Sagardo tradizional ingelesa

### Eris Cider House
AEB / Chicago (Illinois)
www.erischicago.com

**Produktuak:**
- Zaporetako sagardoa eta udardoa
- Sagardo berriak

### Floribunda
Italia / Salorno (Hego Tirol)
www.floribunda.it

**Produktuak:**
- Premium sagardo apарduna
- Zaporetako sagardoa eta udardoa

### Fruktstereo
Suedia / Malmö
www.fruktstereo.com/

**Produktuak:**
- Sagardo berriak
- Zaporetako sagardoa eta udardoa

### Gurutzeta sagardotegia
Euskal Herria/ Astigarraga (Gipuzkoa)
www.gurutzeta.com

**Produktuak:**
- Gurutzeta Euskal Sagardoa Premium
- Gurutzeta Gorenak

### Hemly Cider
AEB / Courtland (California)
www.hemlycider.com

**Produktuak:**
- Zaporetako sagardoa eta udardoa

### Jaanihanso
Estonia /Kaelase
www.jaanihanso.ee

**Produktuak:**
- Sagardo berriak
- Premium sagardo apарduna
- Zaporetako sagardoa eta udardoa

### Kuartango sagardotegia
Euskal Herria / Zuhatzu-Kuartango (Araba)
www.kuartangosagardotegia.com

**Produktuak:**
- Zaporetako sagardoa eta udardoa
- Izotzezko sagardoa

### Oliver's Cider & Perry
EB / Ocle Pychard
www.oliversciderandperry.co.uk/

**Produktuak:**
- Sagardo tradizional ingelesa
- Zaporetako sagardoa eta udardoa

### Ross on Wye Cider & Perry
EB / Ross-on-Wye
www.rosscider.com

**Produktuak:**
- Sagardo tradizional ingelesa
- Zaporetako sagardoa eta udardoa

### Sidra Somarroza
Espainia / Renedo de Piélagos (Cantabria)
sidrasomarroza.es

**Produktuak:**
- Sagardo berriak
- Premium sagardo apарduna
- Zaporetako sagardoa eta udardoa

### Son of Man
AEB / Columbia River Gorge (Oregon)
www.sonofman.com

**Produktuak:**
- Euskal Herriko sagardo tradizionala

### Sidra Trabanco
Espainia / Gijon (Asturias)
www.sidratrabanco.com

**Produktuak:**
- Premium sagardo apарduna
- Zaporetako sagardoa eta udardoa
- Sagardo natural asturiarra
- Sagardo berriak

### Txopinondo sagardotegia
Euskal Herria / Azkaine (Lapurdi)
www.txopinondo.com

**Produktuak:**
- Euskal sagardoa
- Zaporetako sagardoa eta udardoa
- Premium sagardo apарduna

### Valle, Ballina y Fernández
Espainia/ Villaviciosa (Asturias)
www.sidraelgaitero.com

**Produktuak:**
- Zaporetako sagardoa eta udardoa
- Premium sagardo apарduna
- Sagardo natural asturiarra
- Izotzezko sagardoa

### Weidmann & Groh
Alemania / Friedberg
weidmann-groh.de

**Produktuak:**
- Apfelwine
- Zaporetako sagardoa eta udardoa

### Zapiain sagardotegia
Euskal Herria/ Astigarraga (Gipuzkoa)
www.zapiain.eus

**Produktuak:**
- Euskal sagardoa
- Izotzezko sagardoa
- Sagardoz likorea


SAGARDO FORUM
LEHIAKETA


EDEL SIDER




ANGRY ORCHARD
ANGRY ORCHARD
ANGRY ORCHARD

F.W.A
FRUKISTEREO



CIDER TALKS CONTEST FAIR

# SAGARDO FORUM

Sagardoa eta natura, lurraldeak elkartzen

## ANTOLATZAILEA

SAGARDOAREN LURRALDEA
el territorio de la sidra

## KOLABORATZAILEAK

FRAISORO Laboratorio agroambiental

Fruitel

euskal sagardoa Sidra natural del País Vasco

GUERRILLA IMPORTS S.L.

CIDERZALE

## LAGUNTZAILEAK

PRIOR CORK

## BABESLEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa

GIPUZKOA TURISMOA

EUSKADI BASQUE COUNTRY

EUSKADI gastronomika

Astigarragako Udala

hazi

Euskadi, auzolana, bien común — EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO